



## TOMAS AQUINOKOA

### SARRERA

Tomas Aquinokoaren bizitzak Eskolastikaren goraldiarekin bat egin zuen XIII. mendean. Garai hura aurrerabide garaia izan zen Erdi Aroaren barruan, ikuspegi guztietatik begiratuta, ekonomia, artea, zientzia, giza erakundeak eta filosofia loratu baitziren.

Kristau-filosofia ez da Erdi Aroko filosofia bakarra; **judua**, **arabiarra** eta besterik ere bazen. **Kristau-filosofia** zen, ordea, gehien zabaldurik zegoena. Gure gaia, oraingo honetan, filosofia horren atal bat izango da.

San Agustin izan zen kristau-filosofiaren lehen eratzaila. Haren eta Platonen agintaritzapean bilakatuz eta sendotuz joan zen ondorengo mendeetan.

XII. mendean, Aristotelesen Metafisika berrezagutu ahala, egoera aldatzen hasi zen. Aristotelismoak indarra hartu zuen arabiar, judu eta kristauen artean, eta ordura arte Platonen itzalpean eraikitako kristau-filosofia korrante berriaz aberastu zen, Aristotelesi jarraituz zenbait puntutan.

Tomas Aquinokoa, bere gaiari leial, teologoa da batez ere, edo nahiago bada, teologo-filosofoa. Horrek esan nahi du egia erlijiosoak argitzea izan zela haren helburu nagusia. Gauza guztien gainetik, sinesmena tinko onarturik zeukan, eta egin eta idatzi zuen oro horren zerbitzura egin zuen. jainkoari buruzko gaiak izan ziren, hortaz, harentzat garrantzitsuenak.

## 1. TOMAS AQUINOKOA: Bizitza eta idazlanak

Tomas Aquinokoa Napolin jaio zen 1225ean, **Roccaseccan, senideen gazteluan**, Aquino italiar herritik hurbil. Han igaro zituen bere bizitzako lehen bost urteak. Haurra zelarrik, **oblatu** sartu zen Montecassinoko abatetxe beneditarrean eta hantxe hasi zituen ikasketak (lehendabizi gramatika, erretorika eta dialektika, eta ondoren, aritmetika, geografia, musika eta astronomia), bizitza osoko zeregina izango zuen jarduera.

Tomas mutikoa Federiko II.ak **Napolin sortutako unibertsitatean** sartu zen 1239an, eta **arte eta teologia** ikasteaz gainera, **Aristotelesen idatziak** ezagutu zituen (logikari buruzko lan batzuk). Han egin zuen topo lehen aldiz San Domingoren jarraitzaileak ziren **Eskeko Fraide Predikarien Ordenako** kideekin. Domingotarrek biziki erakarri zuten gure gaztea eta, ondorioz, ordenaren abitua jantzi zuen 1244an.

Erabaki hura ez zen, ordea, senideen gustukoa izan. Gurasoek semea abatetxe garrantzitsu hartako abade bihurturik ikusi nahi zuten. Anaia Predikarien ordenan sartu zen, baina haren familiak, kargu erlijioso hobea izan zezan (apezpiku, adibidez), jaioterriko gazteluan urtebete giltzapetuta eduki zuen.

1245ean Parisera jo zuen askatasuna lortu zuenean, eta hirien eta unibertsitateen gorakadarekin batera, eskeko ordenak aurkitu zituen. Hasieran ikasle moduan ibili zen eta ondoren, irakasle. Tomas Aquinokoa **Alberto Handiaren**, orduko maisu ospetsuenaren ikaslea izan zen Parisiko Saint-Jacques komentuan. Hark eman zion fraide gazteari neoplatonismoari buruzko oinarri sendoa. Ikasle gazteak, bera bezala domingotarra zen maisuari, lagundu zion Koloniako Unibertsitatea sortu zuenean, eta lau urte egin zituen haren gidaritzapean, teologia ikasten eta testu aristotelikoak aztertzen (1248-1252).

1252an Parisera itzuli zen bere teologia ikasketak jarraitzera, lehendabizi batxiler bibliko gisa (Bibliaren irakurle eta iruzkingile gisa), eta ondoren, Pedro Lombardiakoaren *Sententziak* lanaren irakurle eta iruzkingile gisa.

Garai honetakoak dira baita ere *Boezioren obrari egindako iruzkinak*; *Izakia eta esentzia* eta *Naturaren printzipioak* izeneko liburuak.

Azkenean, 1256ko udaberrian, **Parisko teologiako fakultatean** irakasteko titulua lortu zuen, eta unibertsitateko irakasle bihurtu zen.

Ondoren, 1259an, Tomas maisua Italiara itzuli zen, bere ordenaren zenbait ikastetxetan irakasle izateko. Aita Santuaren gortera deitu zuten teologia gaietan haren aholkulari gisa jarduteko, eta bertan iraun zuen 1268a arte. Italiako garai hura izan zen Tomasen bizitzako emankorrenetarikoa: ***Summa contra gentiles*** amaitu zuen; ***Aristotelesen obra nagusiei buruzko iruzkinak*** idatzi zituen, eta ***Summa Theologiae*** idazteari ekin zion. Paris utzi zuenerako jadanik lan ugari zituen idatzita: ***Egiari buruzko gai eztabaidatuak*** eta zenbait ***Quodlibetal questions***. Halaber, bere bi lan filosofiko ezagunenak, ***Izateaz eta esentziaz*** eta ***Naturaren printzipioez***, Parisiko bere lehen katedra baino lehenagokoak dira. Eta Erroman, Parisa itzuli aurretik, Aristotelesi buruzko lehen iruzkina idatzi zuen, ***De Anima***.

1268 eta 1272 artean, Parisa itzuli zen berriro unibertsitatean zegoen gatazkan parte hartzera. Batetik, Averroesen eta hark Aristotelesen obraz egin zuen interpretazioaren aldeko **«artistak»** zeuden, eta bestetik, teologi fakultateko **teologo agustindarrak**. Nola bateratu munduaren betierekotasunaz Aristotelesek eta filosofo arabiarrek zituzten tesiak Bibliak Sorkuntzaz zuen ideiarekin? Nola ulertu behar zen dohatsutasuna? Lortzen al du filosofoak mundu honetan pentsamenduaren objektuak kontenplatuz ala teologiak prestatzen digun hil ondoko bizitza espiritualaren zain egon behar da?, Eztatanda haiek elkarren kontra jartzen zituen **arte-fakultateko ikasleak («artistak», hots, filosofoak) eta teologi fakultatekoak**.

Tomas Aquinokoak teologia lan ugari idatzi zuen. *Summa Theologiae* bigarren lanari jarraipena emateaz gainera, ***Gaizkiari buruzko gai eztabaidatuak***, ***Bizitza espiritualaren perfekzioa***, ***Munduaren betierekotasuna***, eta Aristotelesen beste hamaika obraren iruzkinak egin zituen. Aristotelesen Analitikak zorrotasunaren edo demostraziorako eredutzat eta egia aurkitzeko

tresnatzat hartu ziren. Tomasek denak kritikatu zituen, eta lan aristotelikoen irakurketa berritzailea defendatu zuen. Bestalde, une hartan San Buenaventurak ordezkatzan zuten teologia agustindarraren higiezintasun edo mugiezintasuna kritikatu zuen.

Azkenik, Tomas Italiara itzuli zen 1272an, maisu titular gisa Napolin irakastera. *Summa Theologiae* lanaren hirugarren atala lantzen jarraitu zuen, nahiz eta ez zen amaitzera iritsi. 1274an Gregorio X.a aita santuak aditu moduan Lyongo Kontzilliora bidali zuen, eta Tomas Aquinokoa bidaian gaixo sentitu eta Fossanuova monasterioan hil zen, 1274ko martxoaren 7an, 49 urte zituela.

## 2. TOMAS AQUINOKOAREN GARAIA

### 2.1. Testuinguru historiko, politiko eta kulturala

#### 2.1.1. XII. mendea

Erdi Aroko filosofiaren benetako garapena XII. mendean gertatu zen Mendebaldean. **Aristotelesen pentsamendua latinera itzultzen** hasi ziren; ordura arte haren logikazko idazki gutxi batzuk besterik ez ziren ezagutu kristau hezkuntzan. Lan batzuk zuzenean **itzuli** ziren grekotik; beste batzuk, berriz, arabieratik itzuli ziren erromantzerara. Hiribilduen garapenarekin eta intelektualen klase berri baten sorkuntzarekin batera gertatu zen. Jakintza ez zen jadanik monasterioetako eskoletara bakarrik mugatzen, baizik eta katedraletako eskolen garapen naturaletik sortu berria zen unibertsitate sistemara ere zabaldu zen hirietan.

Aristotelesen lanak pixkana-pixkana sartu zirenean unibertsitatean, **gatazka eta eztabaida** ugari sortu ziren. Filosofia teologiatik askatzeaz gainera, intelektualak unibertsitateak zuen botere-ahalmenaz jabetu ziren. Botere mundutarraren eta gizarte-kristauari berezkoa zitzaien botere espiritualaren arteko kontraketasuna bideratzeko indar bihurtu zen.

Hizkuntzaren inguruko antzeek (batez ere gramatika eta dialektika) berebiziko garapena izan zuten. Gaztelako Alfontso VI.ak 1085ean Toledo hartu ondoren, **kristau, musulman eta juduen kulturen arteko komunikazioak** gora egin zuen nabarmen XII. mendean sortutako **Toledoko Itzultzaile Eskolaren** bitartez.

#### 2.1.2. Kristauak, musulmanak eta juduak

Erdi Aroan kristauak, musulmanak eta juduak elkarrekin bizitzeak ezinbestean ekarri zuen hiru taldeen arteko kultur trukea. Kultura batetik besterako ekarriak Erdi Aro osoan jarraitu zuen eta eragina izan zuen bai produkzio tekniketari, bai erakunde politikoetari eta bai ideietari eta eguneroko bizimoduari.

Esate baterako, arabiarrek Greziako eta ekialdeko pentsamendua irakatsi zieten kristauei. Horrela ezagutu zituzten Aristotelesen lan metafisiko, fisiko eta biologikoak, baina baita arabiar filosofoak eta juduen filosofia ere; besteak beste, Avizen (980-1037), Averroes (1126-1198) eta Maimonides (1135-1204).

##### a) Averroes

Averroesek bete-betean onartu zuen pentsamendu aristotelikoa, eta interpretazio eta eztabaida ugari sortu ere XIII. mendeko Europako unibertsitateetan. Jarrera horren ondorioz, arazo larriak izan zituen buruzagi islamiarrek. Azkenean, erbesteratu egin zuten denboraldi baterako eta haren liburuak debekatu zituzten: *Aristotelesen lanei buruzko iruzkinak eta Laburpenak, ertainak eta luzeak*.

Averroesek aldarrikatu zuen ez dagoela inolako kontraesanik islamiar erlijioaren fedeari eta giza-arrazoimenari bere kasa, gogoetaren eta ikasketaren bidez, ateratako ondorio filosofikoen artean.

Garai hartan hiru tesik bereizi zuten averroismoa aristotelismoaren beste aldaera batzuetatik: egia bikoitzaren teoria, munduaren betikotasuna eta adimen-egile bakarraren tesia.

### **1. Egia bikoitzaren teoria**

Eskema kontzeptual berri bat da, batez ere, arrazoiaren askitasun bat, garai hartako eskolastikaren oinarriko suposatuei erronka egiten ziena. Averroismoak San Agustinen arrazoimenaren eta sinesmenaren arteko sintesiari erasotzen zion, hau da, pentsamendu kristauaren muinari. Badira ulertu ezin ditugun egiak, eta, horregatik, Agertuaren eremuan sartzen direnak. Liburu Santuetan agertzen dena sinesmen gai da. San Agustinentzat sinesmena arrazoimena baino garrantzizkoagoa da. Mende batzuk geroago, San Antselmok gauza berari eutsi zion: *credo ut intelligam*, hau da, ulertzeko sinesten dut.

Sinesmenaren eta arrazoimenaren arteko oreka hori aldatu egin zuen averroismoak. Bai arabiarrek bai Parisko averroismo latindarraren jarraitzaileak sinesmenaren eta filosofiaren arteko bakea eta bateratzea egin nahian ibili ziren. Kristau Elizatik kanporatuak eta baztertuak ez izateko, gauza bera defendatu zuten. Teoria horretan jarri zituzten, beraz, itxaropen guztiak; batetik, filosofoak zirenez gero, arrazoiak eskatzen zizkien ondorioak askatasun osoz zabaldu ahal izateko eta, bestetik, sinesmendunak zirenez gero, sinesmen mailan erlijioaren egiak onartu eta Elizaren seme apalak izaten jarraitzeko.

Arabiarrek, kristautasunak zuen indar ahalguztidunaren aurrean, **egia bikoitzaren** teoria asmatu zuten, beren filosofiaren independentzia erakusteko hura zela bide egokia pentsatu baitzuten. Teoria horren arabera, filosofoek, filosofia mailan, **egiazat aitor ditzakete sinesmenak ukatzen dituen tesiak**, eta ondoren, sinesmenaren esanak onartu, jakituria hori aberatsagoa delako.

### **2. Munduaren betikotasuna**

Mundua, unibertsoa, betikoa da. Betikoa hitzak hemen, ez duela **ez hasierarik ez bukaerarik** esan nahi du. Gauza errealak, gizadia ere barruan dela, betikoak dira munduarekin batera. Ezin zitekeen bestela izan, greziar filosofiari fin jarraitu nahi dionak gauza bera esan behar baitu. Greziarrek, eta hauen artean Aristotelesek, krazio kontzepturik ez zutenez gero, gauzak ezin zituzten hasieradunak bezala aurkeztu. Bestalde, bai gauzak bai gertaera guztiak **etengabeko itzuliaren legepean** daudela aitortu zuten.

Garbi dago kristau-filosofiak krazio kontzeptua eztabaidaezintzat aitortzen duela eta puntu horretan averroismoaren kontrakoa agertu dela.

### **3. Adimen-egile bakarraren tesia**

**Arimaren hilezkortasuna** da hemen eztabaidatzen den arazo nagusia. Averroesen jarraitzaileek hilezkortasunaren aurkakotzat daukate Aristoteles. Haien iritziz, gizakiaren konposaketak hilemorfismoaren teorian oinarritu behar du eta arima, horrela, batasun substantzialaren osagarritzat hartzen denez gero, gorputzarekin batera, eta beste izaki guztiak bezala, deseginik eta usteldurik deuseztatzen da. Jainkoari dagokion ulermena ezin daiteke berez hilkorra den gizaki banakakoaren arimari loturik egon; beraz, **gizadi osoaren ahalmenak hilezkorra izan behar du**.

Egia esan, antzinako beste idazle askoren antzera, gai honi buruzko Aristotelesen pentsaera ez dago batere garbi. Adimen jasailea edo pasiboa aipatzen duenean, ustelgarria dela esaten du; adimen-egileaz ari denean, berriz, beste era batera hitz egiten du eta bereizgarria, sinplea, nahasketarik gabea eta hilezkorra dela esaten du.

#### **b) Maimonides**

XII. mendetik aurrera, intelektual juduak filosofia klasikoan aditu bihurtu ziren, eta, islamiar filosofoen antzera, hura interpretatzen saiatu ziren. Maimonides gailendu zen haien artean.

Erreinu kristaueetako itzultzaile eskoletan ere ez zuten zalantzarik izan judu adituak hartzeko, eta haien bidez, hebrearrek eta musulmanek dagoeneko menderatzen zuten filosofiaz jabetzeko.

Maimonides sendagilea izan zen lanbidez, baina erlijio juduari buruzko azterlanak, lan zientifikoak eta erlijiosoak ere idatzi zituen. Besteak beste, bereziki aipagarria da **Harrituen gida**, judaismoaren sinesmen erlijiosoen eta Aristoteles sinesmenaren artean zalantzan zeundenentzat idatzia. Maimonides **fedea dogmak eta filosofia uztartzen** saiatu zen, eta bere argudioek eragin handia izan zuten gerora Europako filosofoengan. Tomas Aquinokoa ere arrazoimena eta fedea uztartzen saiatu zen.

### 2.1.3. XIII. mendea

XIII. mendean, **krisialdi politiko, erlijioso eta intelektual** batek Erdi Aroko kristaudia inarrosi zuen. Arlo politikoan, erregeek eta enperadoreek, besteak beste, Felipe Ederrak edo Federiko II.a Hohenstaufengoak gero eta zuzenago egin zioten aurre garaiko Aita Santuen botere espiritualari. Mundu honetako botereak ez zuten botere espiritualaren mende egotea onartzen. Erregeek lehendik ere botere handia bazuten ere, mende honetan horien agintea sendotu eta indartu egin zen erromatar zuzenbideari esker. Erregeez gainera, honako estamentu hauek zeuden: Noblezia (gerlariak), Eliza (otoitz egiten dutenak) eta Hirugarren Estatua, hau da, **hiriek** eta herriek osatua (langileak).

**Nobleziaren** barruan mailak zeuden: goi-goian gizaseme aberatsak (baroiak) eta, bestalde, behe-noblezia (zaldunak eta aitoren semeak). Lurralde zabalak kontrolatu, zergak bildu eta aginte jurisdikzionala ere bazuten.

**Elizgizonen** multzo handi bat ere pribilegiatua zen. Klero sekularren eta arau monastikoei lotuta bizi zen klero erregeladunaren artean berezi beharra dago. Elizak, bestetik, jaurerri indartsuak zeuzkan. Gizartean, ordea, bereizketa egiten zen nobleziatik zetorren goi-kleroaren eta jatorria herrian zuen behe-kleroaren artean.

**Nekazariak** ziren lurra landu eta gizarte osoa mantendu eta beharrak asetzeko beharrezkoa zen guztia ekoizten zutenak. Gehienetan besteen lurrak lantzen zituzten eta mendekotasun handia zeukaten; hala ere, bazeuden nekazari aberatsak ere bai.

Erljiioaren arloan heresiak ugaltu ziren, askotan kleroaren aberastasun edo gehiegikeriengatik. Ebanjelizazio berriaren premiak eskeko bi ordena sortu zituen: domingotarrena 1217an eta frantziskotarrena 1223an. **Aberastasunari uko** egin zioten eta pobretasuna hartu zuten ebanjelioko idealizat. Arrakasta handia izan zuten (intelektualengan batez ere) eta pixkana-pixkana eskeko ordenek jaio berriak ziren unibertsitateen kontrola beren esku hartu zuten.

Kristoren pertsonari buruzko teologia berri hark Elizaren aberastasunen eskandalua salatzen aukera eman zien Erdi Aroko intelektualei. Horrez gain, ideia haiek unibertsitatekoa ez zen jendearengana ere hedatu ziren eta ondorioz, teologia ebanjeliko hura askok bereganatu zuten.

Goi-mailako intelektualek teologo kristauen eta juduen arteko eztabaidak antolatu zituzten **hebrearrek federa konbertitzen** saiatzeko, baina, nolana ere, juduen kontrako gorrotoa erabat zabaldu zen kristau talde sozial gehienaren artean. Deabruzko gauzeekin lotzen ziren juduak, eta hilketak, sineskeriak eta bestelako izugarrikeriak egozten zitzaizkien. Askotan apaizek eta fraideek berek (**domingotarrek eta frantziskotarrek** batez ere) berotzen zuten herriaren irudimena, eta edozein aitzakia (krisialdi politiko, arazo ekonomikoak) baliatzen zuten judutegiaren aurka indarkeriaz jotzea zuzitzeko. Eraso horien atzean, askotan, asmo jakin batzuk ezkututzen ziren. Ez da ahaztu behar salerosketa edo kreditua zela judu askoren lanbidea, eta lanbide horietan ez zela asko behar etsaiak egiteko. Hebrear komunitateak izan ziren, zalantzarik gabe, kultura eta ekonomiaren suspertzaile nagusiak Erdi Aroan.

Islamiar herriek, berriz, ez zuten juduekin erlijio arazo handirik izan, musulmanek nahiko ongi hartu zituzten hebrear komunitateak; hiriko kulturaren finkatu ziren gehienbat eta merkataritza sare zabalak eratu zituzten. Judu asko kalifa eta emirren aholkulari, enbaxadore edo bankariak izan ziren, eta juduen Erdi Aroko kulturaren muina Islamaren mende zeuden lurretan eratu zen.

Garai hartan Paris, Oxford eta Bolognako unibertsitateak sortu ziren. Kultur-bizitza Elizaren eraginpean zegoen, katedraleko eta monasterioetako eskolen bitartez. XIII. mendean unibertsitate erakundea heldu zen hispaniar lurretara Leon Alfontso IX.aren.

Unibertsitateetan sortu ziren «**eskolastika**» deitutako ideiak eztabaidatzeko eta azaltzeko **prozedura metodikoak**. Ikasketa ororen oinarrian, testua gramatikalki analizatzen zuen iruzkina zegoen. Gero **esanahia aztertzen** zen eta azkenik, **edukiaren egiaren exegesia** egiten zen. Orduan eztabaida dialektikoa hasten zen **questio** eran. Amaieran, maisu eta ikasleen arteko **disputatio** edo eztabaida zegoen, eta testua lehia moduko apustutzat hartzen zuten.

## 2.2. Eragin filosofikoa

### 2.2.1. Alberto Handia, San Buenabentura eta Tomas Aquinokoa

Zientzia berri hartako maisu ezagunenak **Alberto Handia** (1200-1280), San **Buenabentura** (1217-1274) eta **Tomas Aquinokoa** (1225-1274) izan ziren. Hirurek Parisen irakatsi zuten 1245 eta 1272 artean. Arabiarren eskutik Aristoteles aurkitu zutenean, eztabaida handiak izan zituzten. Izan ere, arabiarren, juduen edo paganoen filosofiatik sortutako testu eta auziak ez zetozen

bat botere karolinjioa sortu ondorengo kleroak erabat onartzen zuen teologia agustindarrarekin. Sintesi harmoniatsua premia gero eta handiagoa zen arte fakultateko laikoan (hau da, «artista» edo filosofoen) eta teologi fakultateko teologia tradizionalaren zaleen arteko eztabaidak saihesteko.

Alberto Handiak eta Boezio Daziakoak onartzen zuten bide filosofikoaren autonomia, baina filosofoaren kontenplaziozko bidearen nagusitasuna balioesten zuten. Tomas Aquinokoa Antselmo Canterburykoak XI. mendean irekitako bidea sakondu zuen, fedea arrazoimenarekin bateratu nahian. Tomas Aquinokoarentzat filosofia teologian amaitzen da, eta fedea sendotzeko azalpen seguruenak bada. Bere *Summa Theologiae* benetako sintesia da zentzu horretan: aldi berean existentziaren hasieratzat eta amaieratzat Jainkoa duen munduaren kontzientzia.

### 2.2.2. Pedro Abelardo

Eskritura Santuen Agerkundera zalantzan jarri gabe, arrazoimenak ordura arte uste baino botere handiagoa zuela ohartu ziren. Garai hartako dialektiko ospetsuena zalantzarik gabe Pedro Abelardo (1079-1142) izan zen. Batez ere Aristotelesen logikari egindako iruzkinetatik ateratako «errealismo» mota guztien kontrako jarreragatik da ezaguna, baita unibertsalen eztabaidan hartu zuen jarreragatik ere.

Arazoa honako hau zen: «gizakia», «gizadia» edo antzeko ideia orokorreko kategoria hauen mende sailkatzen diren gizaki jakinetatik bereizitako errealitatea zuten edo ez jakitea. Galdera horri Erdi Aroko pentsalariak bi erantzun mota eman zizkieten eta bi korrante nagusi eratu ziren. «Errealista» deitutakoen ustetan, «unibertsala» (hau da Aristotelesen logikako generoak eta espezieak) gauza indibidual eta konkretuetatik aparte dauden errealitateak dira. Abelardok eta beste «nominalistek», berriz, gauza unibertsalik ez dela uste zuten. Izan ere, definizioz, gauzak indibidualki eta bereizita besterik ez daude. Nik «Sokrates gizakia da. esaten dudanean, adibidez, «gizakia» nahitaez izaki indibiduala da. «Gizakia», «gizadia» eta antzeko kategoriak inola ere ez dira gauzak, hitz hutsak baizik. Izaki indibidualak besterik ez dira. Hitz bitartez adierazten diren ideiak eta kontzeptuak gauza partikularretatik lortzen dira konparaketaren eta abstrakzioaren bitartez, ez baitira haietatik kanpo existitzen.

### 2.2.3. Gilermo Ockhamgoa

Gilermo Ockhamgoa (1285-1349) izan zen unibertsitateko teologiako maisu handiak gehien kritikatu zituenak. **Nominalismoaren bidetik** eta **errealismoa kritikatu**, Erdi Aroko teologiako sistema nagusiak hautsi nahi izan zituen. Hizkuntzara aplikatutako bere metodo analitikoak ekonomikoak eta garbitzaileak («**Ockhamgo labana**» deitu izan zaio) teologia eskolastikoaren

proposizio konplexuak hautsi egiten ditu proposizio elementaletan deskonposatzeko. Abelardorentzat bezala, unibertsala edo kontzeptu abstraktua gauza singularren aniztasunaren hitzartutako ikurra da, izen arrunta. Anlisi logikoaren bidez aurkitzen da abstrakzio kontzeptualen atzean unibertso konkretua eta norbanakoak besterik ez direla ezkututzen. Gaur egungo Filosofia Analitikoaren antzekoa den filosofia hau, metafisikarien hizkuntzari eta unibertsala espiritutik kanpoko errealitateari atxikitzeari egindako kritika da. «Gizakia», «gizadia» bezalako kontzeptuak ez dira adimenaren errealitateak. Ockhamgoak, teologiako «unibertsalak» arbuatzeaz gain, izaki bizidun banakakoen intuiziozko ezagutza ekintza konkretuetaraino heltzen den bakarra dela esan zuen. Bere analisisiei esker, giza pentsamendua pentsamendu-teologikoaren mugetatik askatu ahal izan zen.

#### **2.2.4. Dante**

Dantek (1265-1321) «artisten» aldeko eta teologi fakultatekoen kontrako jarrera izan zuen. Danterentzat filosofoaren bizitzako zoria teologoaren **betiereko dohatsutasuna** adinakoa zen. Politikaren arloan, aristotelismo erradikalak eraman zuen Dante bere *Monarkia* lanean (1310), unibertsarioen aristotelismoaren «birplatonizazio» moduko batera. Izan ere, kristautasunak oraindik ere gizartean enperadorearen eta Aita Santuaren pertsonenganako bi helburu bereizi ezartzen baditu (garai hartako Federiko II.aren eta Aita Santuaren arteko gatazkek hori erakusten zuten); Danteren arabera, harmonia berriaren oinarria aurki zitekeen filosofo zentzudunarengan, eta horrek Platonen Hiri idealeko errege-filosofoa gogora ekartzen du.

#### **2.2.5. Eckart**

Pentsalari batzuek, ordea, ez zuten, Danteren antzera, helburu mundutar eta espiritualen arteko gatazka noblezia eta monarkia idealizatuz gainditu nahi, mundua benetan aldatuz baizik. Bide horri heldu zion Eckart deitutako aleman teologo maisuak (1260-1327). Bizitza zibilean egin zituen hizkuntza arrunteko predikuen bidez, Kristoren eta bere apostoluen benetako bizimodua ezartzen saiatu zen, pobretasuna eta apaltasuna bateratzen zituen bizimodu berria, hain zuten. Erdi Aroko mistizismoaren korrontean sartu behar da Eckart. Mistizismoa, pentsamendu baten adierazpena baino areago, esperientzia erlijioso baten aitortpena da, eta jainkoaganako bidea erraztea du helburu, gizakia profanotik sakratura jasotzea, alegia. Ideia filosofikoak eta arrazoimenaren jainkoa (nozio abstraktua) arlo profanoaren barruan sartzen dira. Sakratuaren esparruan (sentimenduan), aldiz, jainkoa da, batez ere beldurrez bizi den esperientzia.

#### **2.2.6. Tomas Aquinokoaren aristotelismoa**

Tomas Aquinokoak Aristoteles onartzen du. Aristotelesen erakutsiak kristau-filosofia aberastu eta berritzeko egokiak direla uste du. Aristoteles onartzen du, bai, baina sinesmenaren aurkako ikuspuntuetan beste iturrietara jotzen du eta, batetik eta bestetik hartutakoekin, sintesi miragarria egitera iristen da.

Aristotelesen berrezagutzea ez da bat-batean biribiltzen den gertakaria. Hasieran, arabiar itzultzaileen lanetan, batez ere Averroesen baitan, agertzen den bezala hartzen da; gero San Tomasek itzulpen lan berriak eginarazi zituen, grekotik latinera zuzenean eginak; horietan ikusi zen Averroesen interpretazioak ez zirela egin zitezkeen bakarrak, bazegoela Aristoteles beste era batera ulertzerik. Adibidez, arituaren hilezkortasunaren **auzian**, San Tomasek dioenez, Aristotelesek gizaki bakoitzaren hilezkortasuna aitortu, arima bakoitzaren ahalmen gorenetakoen artean adimena jarri eta arimaren beraren hilezkortasuna defendatzen du.

Munduaren **betikotasunaz** honako hau dio: filosofi arloan berak ere ez daukala eragozpenik gauza bera, hots, mundua betikoa dela, esateko. Kristau-filosofia, bere kasa, mundua kreaioaren bidez egin dela erabakitzen iristen da alde batetik, eta, bestetik, kreaio eta betikotasun kontzeptuek ez dutela kontraesanezko edukirik; beraz, posible da biak defendatzea. San Tomasek badaki, noski, munduak hasiera izan duela, baina hori sinesmenak argituta daki, jakin.

San Tomasek Aristoteles onartzen du honako kontzeptu eta teorietan: errealitateari buruzko irakatsi gehienetan, **mugimenduaren teorian**, (potentzia eta aktoa, lau aldaketa mota), **konposaketa hilemorfikoan** (gauzei substantziazko forma bakarra eta espirituzko substantziei

materiarik gabeko forma hutsak aitortuz), kategorien eta lau kausen teorietan, jainkoari buruzkoetan (jainkoaren existentziaren probetan, azkengabeko kausa-katea ezinezkoa dela esatean), gizakiari buruzkoetan zenbait gauzetan ere bai (arima bizi-printzipiotzat hartzean, zoriona dela gizakiaren helburua esatean etab ... ). Horietan guztietan, San Tomasek baietz esaten dio Aristotelesi.

## 3. TOMAS AQUINOKOAREN PENTSAMENDUA

### 3.1. Ezagutzaren teoria

Giza-arima espirituzkoa da. Adimena, arimaren ahalmen bat denez gero, espirituzko errealitatea ezagutzeko egin da. Halako iritziak bat datoz kristau sinesmenarekin, baita Platonen antropologiarekin ere. Baina, gizakia ez da espirituzko arima, adimen hutsa, batasun substantzial bat baizik; batasun horretan loturik daude espiritua eta materia, arima eta gorputza. Gorputz-adimen arteko loturak direla eta, adimena zentzumenen bidez ezagutu beharrean aurkitzen da eta, noski, zentzumenak gorputzaren zati dira. Adimenak materiazko errealitate-iturritik hasita eratu behar du ezagutza, eta errespetatu zentzumenen mugak eta neurriak. Adimenak, arrazoi horregatik, ezingo du errealitate osoa ezagutu, materiazko errealitate hautemangarria eta sentipenezkoa baizik.

#### 3.1.1. Adimenezko ezagutza

Aristotelesi jarraitzeak, ezagutzaren teorian ere hari jarraitza behartzen du. Kontzeptuak dira adimenezko ezagutza gauzatzen dutenak. Kontzeptuak unibertsalak dira, hau da, izate mota bakoitzaren indibiduo guztiak sartzen dituzte bere esanahian. Zentzumenen hautemate partikularrak banakako izaki jakinak hartzen ditu bakarrik, aurrean hautematen diren haiek, ez besterik. Adibide batez azaltzeko: zuhaitzaren kontzeptu bakarra zuhaitz guztiei dagokiena da; aldez, zuhaitzaren hautematea aurrean hautematen den hari dagokiona da.

Giza-adimenak lehen-lehenik ezagutzen duena unibertsala da, gauzen **essentia universalis** delakoa. Adimena, **abstrakzioa** lagun, zuhaitz izatea ulertzera iristen da, zuhaitz hori zuhaitz espezie unibertsalaren partaide dela eta esentziako izaera hori azaleko beste akzidenteez apaintzen dutela jakitera iristen da. Gero, buruz ulertu den izaera hori bera gauza edo errealitate konkretu batean betetzen dela ikusten da. Arazoa hemen sortzen da: adimenak zentzumenetatik datozkion objektuez baliau behar badu kontzeptuak sortu eta ezagutzeko, nola lortzen da ezagutza unibertsala partikularrak diren horietatik?

Sentipenezko hautemateak irudimenean eta oroimenean uzten dituzten gauzen irudi partikularrei Tomas Aquinokoak **phantasma** deitzen die eta irudimenari, berriz, **phantasia**.

Horiek (**irudiak**), gurekin dauzkagunean, **adimen-egilea** hasten da lanean eta, abstrakzio ahalmenaren bitartez, hautemandako objektuari bere irudi partikular guztiak kendu eta biluzik uzten du. Honela, osaturik gelditzen dira gauzen irudi unibertsalak edo adimenezko kontzeptuak. **Adimenak esperientzia du ezagutzaren iturri gisa, baina adimen unibertsalaren bidez iristen da errealitate banakakoak ulertzera.**

#### 3.1.2. Unibertsalen arazoa

Erdi Aroko pentsalari guztiek ematen dute gai honi buruzko iritzia. San Tomasek ere, Platon eta Aristotelesengandik ikasitakoari jarraituz, mundu honetako errealitatea **esentziaz** osatua dagoela esan zuen, lehenago ikusi dugun bezala. Esentziek badute, beraz, errealitaterik, baina ez Platonek ulertzen zuen eran; zentzu horretan, ideien mundurik ez dagoen bezalaxe, ez dago esentziarik ere ez. Baina esentziak errealak dira. Zergatik? Izaki konkretuak eta banakakoak errealak izateko, esentziaz, izaera jakin batez, esentziako osagarri metafisiko batez osaturik egon behar dute eta hau gabe ezer ez dira. Errealitatea badute, bai, baina ez da absolutua, ez da mundu honetatik kanpo dagoena, mundu honetako materiari lotua baizik. Platonen ikuspuntuari **«errealismo gehiegizkoa»** deitzen zaio; San Tomasenari, berriz, **«errealismo mugatua»**.



### **3.2. Arrazoa eta sinesmena**

Aristoteles berrezagutzeak garrantzi handia eduki zuen Erdi Aroan. Ordura arteko arrazoiaren eta sinesmenaren arteko arazoari buruzko iritzia aldatu egin zen; gertakari hori aristotelismoari esker posible izan zen. Tomas Aquinokoak egindako gogoetetan (fruitu nagusia *Summa Theologiae* da) kristautasuneko Agerkundera aberastu nahi bazen, filosofoaren arrazionaltasuna eta teologoaren fedea elkartu beharra zegoela ohartu zen. Filosofia horrek teologiari laguntzen dio, haren morroi bihurtu gabe. Berritze hori, batez ere, San Tomasek egin zuen.

#### **3.2.1. Arrazoiaren eta sinesmenaren arteko mugak**

- a) Platonismoan ezagutza goitik beherako gauza da. Adimenezko ezagutza beti ideien mundutik hasten da. Lehendabizi, ideien mundua kontenplatu behar da. Zerbait ulertzeko, goitik behera, osotik zatira, eguzki argitik ilunagorako prozesua jarraitu behar da. Adimenezko ezagutza kontenplazioan hasten dela, eta ezagutzaren objektua hasieratik osorik hartzen dela dioenak ezin ditzake inola ere arrazoiaren eta sinesmenaren arteko mugak jar. Platonismoak azpimarratzen duena honako hau da: adimenezko ezagutzari espirituzko errealitateaz jabetzea dagokiola. Hortik aurrera giza-adimenak, materiazko mundu honetan dagoen bitartean, ezagutzara nola iristen den azaltzerakoan, zailtasun asko aurkitzen ditu.
- b) Aristotelismoan, aldiz, ezagutza esperientziatik hasi behar da eraikitzen, giza-adimena materiari loturik baitago eta arrazoi-bideak zentzumenekin harremanetan baitaude; errealitate materiazkoak dira zuzenean zentzumenen iturri horietatik jasotzen ditugunak. Behetik gora ibili behar da, bada, behe-ezagutzatik beste goragoko ezagutza mailetara iritsi nahi bada. Bide horretatik joan beharra daukagu jainkoaz zerbait jakin nahi badugu. Behetik gorako bidea zaila egiten baita beti; aristotelismoaren bitartez erraz azaldu ahal izango dira goi-ezagutzaren inperfekzioa, ezina, analogiaren beharra etab...

Sinesmena goi-argiz eratutako jakinduria iturria da, errebelazioaren argiz eraikia, goitik beherako bidea ibili duena. Orain bai, aristotelismoaren bidez, posible izango da azaltzea bi jakinduria bide horiek ezingo direla ezagutza maila berdinetara iritsi, ezingo dutela lana berdín egin, ezingo dituztela urak iturri beretik hartu.

- c) San Tomasentzat arrazoi-bideak, filosofiak, alegia, eragozpenez betea aurkitzen du bere lana, eta mundu honetako errealitatea ezagutzera bakarrik iristen da. Goragokoak ezagutzera igo nahi duenean, itsuaren antzera ibiltzen da, pausoz pauso, erortzeko arriskua beti aurrean duela. Hala ere, berez espirituzkoa denez gero, espirituzko izaki gorenak ezagutzeko gaitasunik badu, Sinesmena, berriz, gainetik dago, jakitate ziurra da; jakitate horretan ezagutzak ez du ez neurririk ez mugarik.

### **3.3. Izadia**

#### **3.3.1. Materia lehena eta forma substantziala**

Izadiari egiten diogun lehenengo begiratuan, materiazko gauzak asko direla, desberdinak direla ohartzen gara. *Aniztasuna eta desberdintasuna* ematen dira gauzen artean, baita gauza bakoitzaren osagarrietan ere. Ohartzen gara gauzak aldatuz joaten direla, neurritz, kolorez, indarrez etab., eta hori dena gauzak bere berberatasuna galdu gabe. Honek gauzetan aldagaitza den zerbait (substantzia) badela eta zati aldakorrek (akzidenteak) ere badirela ikustera bultzatzen gaitu. Hau da: gauza bakoitzaren baitan substantzia eta akzidenteak desberdintzera iristen gara eta, honela, hamar kategorien (substantzia 1 eta 9 akzidenteen) teoria sortzen da. Hamar kategoria horien bidez ulertzen dugu gauzen aldaketa akzidentalak nola egiten diren.

Adibidez, ardiak belarra jaten duenean, belarra izaeraz aldatzen da; belarra ez da jadanik belazean zegoen hura bera eta, azkenean, haragi bihurtzen da (forma substantziala). Aldaketa sakon horri substantziatzko aldaketa esaten zaio. Aldaketa honetan bada zerbait lehengo bera izanez segitzen duena (materia lehena), zerbait bazegoen belarraren izaeran haragi bihurtzeko gauza zena; horregatik, lehengo bera izanez segitzen duen hori belarra zenean belar-izaerari loturik zegoen eta gero haragi-izaerari.

### 3.3.2. Hilemorfismoaren teoria

Honako hau da Aristotelesen hilemorfismoaren teoria ezaguna: izadiko substantzia guztiak **materiaz eta formaz** osaturik daude. Horrela osaturik ez daudenak ez dira errealak. Materia hutsa formarik gabe ezin izan daiteke erreal; beraz, **kontzeptu hutsa** da. Materia huts hau, beraz, kontzeptua da, baina, formari lotzen zaion ikuspegitik hartuta, «**materia lehena**». Hau «**izan gaitasun hutsa**» bezala definitzen da; eta forma substantziala, berriz, materiazko gorputz baten lehen «**aktoa**» (*actus primus*) da, hots, izaera da, zerizana zehazten duena, gauzari zertasuna ezartzen diona. Materia lehena gauzen forma izan litezkeen zera guztiei buruz izangai den materia da, potentzian dagoena, bere baitan huts-hutsik hartuta, inongo formarik gabe, elementua da beti, eta ezin daiteke bestela izan. Ez da forma baino lehenagokoa den zerbait, une berean formarekin batera egina izan dena baizik. Hortaz, materiazko munduan substantzia konkretuak materiaz eta formaz osatuak, osaera hilemorfikoz eginak daude.

Gauza konkretuak zergatik diren beti banakoak esatea gelditzen zaigu oraindik. Nola eta non oinarritzen da gauzen **banakotasuna**? Forma ezin izan daiteke inola ere banakotasunaren oinarri, **forma unibertsala** da. Nondik dator kio errealitate konkretuari banakotasuna? Materiatik, noski, baina materiak, bera ere izangaitasun hutsa denez gero, forma bereizgarri bihurtzeko beharko litzatekeen zehaztasunik ez du berez. Kantitateak eta horrelako beste zenbait alderdik izaera akzidentala izan behar dutela, eta gauzaren osaera hilemorfikoaren ondorio gisa datozenak direla, garbi dagoen gauza da. San Tomasek dio **materiak sortzen duela kantitatezko zehaztasunaren beharra, formarekin bat egiten duenean**. Hori da banakotasunaren arrazoia eta sustraia. Gauza bakoitzak forma substantziala bakarra du, ez asko, eta forma horri erantzen zaizkio akzidentalak diren beste formak.

Izadian dagoen zernahi delarik ere, **aktoan daukan izatez eta potentzian daukanez osaturik dago**. Konposaketa metafisiko horrek **mugimendu eta aldaketen azalpena eta izatea** oinarritzen ditu. Konposaketa unibertsal hori gauzen legea den neurrian ikusten da; mundu honetako gauza guztiak zergatik dauden aldaketaren (jatio, hazi, desegin) legepean ere ikusten da.

Munduan diren aldaketa eta mugimendu mota guztiak honako lau hauetan sartzen dira: aldaketa **substantziala, lekuzkoa, kantitatezkoa** eta **kalitatezkoa**. Azken hirurak mugimendu edo aldaketa akzidentalak dira.

Aldaketa bizian daudela ikusteak «**kausen**» teoriara eramaten gaitu, gauzek ez baitute beregan beren sortze eta aldaketen zergatia. Lau kausa hauetan sartzen dira munduan diren printzipio eragile guztiak: **formala, materiala, egilea eta xedezkoa**. Laurak lau mugimenduen kausa azaltzaileak dira.

Baina ezer ez da sortzen, hau da, ez da akto bilakatzen, lehenik akto ez den zeratik izan ezik. Eta izadiaren azalpen orokorra egin nahi bada, **kausen katearen arazoari aurpegia eman behar zaio**. Gaur errealak diren izakiak izatea nondik duten galderari erantzuten zaio aktoan forma berdina zuten aurreko beste izaki berdintsu batzuk sortuak direla. Halaber, aurreko horiek izatea nondik duten galde liteke eta aurreko horien aurreko izaki beretan egongo da erantzuna eta, honela, noiz bukatu ez dakigun katea eratuko genuke. Katea esan dugu, kausen katea, hain zuzen. Kausen katearen arazoa honako hau da: **munduko gauzen izatea betidanik kausatik efektura** eta **efektu zena kausa bihurtu eta honetatik beste efektura joanez doan prozesua da**. Bestela esanda, errealitatea kausatik kausara azkenik gabe joanez doan zerbait gisa ulertu behar da ala, alderantziz, emandako azalpen hori **azkengabeko kausen katearena**, alegia, ezinezkoa da eta, beraz, **lehen kausa** eta munduaren sortzailea den lehen izakiren batean gelditu behar dugu prozesua? Munduaren azalpen orokorrari

dagokionez, zein da bi horietatik egokiena? Aristotelesek, jakina denez, bigarren azalpena eman zuen eta, esan beharrik ez dago, kristau-filosofiak pozik onartu zuela. San Tomas Aquinokoak onartu eta indarberritu zuen.

### 3.3.3. **Esentzia eta existentzia**

San Tomasek asmatutako erakutsi aberats batera iritsi gara: «esentzia eta existentziaren» teoriara. Egia esan, Aristotelesengan sustraitua dago, baina berea da benetan. San Tomasen ustez, metafisika-ikerketak ez dago bukatua, orain arte egin denak ez du gauzen izaki erreala ondo azaltzen. Aristotelesen metafisika eranskin berezi batez osatu behar da: esentziaren eta existentziaren artean badago alderik. Esentziak gauzak zer diren dioen bitartean existentziak gauzak direla esaten du. Esentziak ez du berez

existentzia suposatzen, **substantzia erreala ulertzeko esentzia ez da aski eta existentziaren osagarria behar du**. Zer da existentziak esentziari eransten diona? Hilemorfismoaren teoriaren eta Aristotelesen metafisikaren bidez gauzak zer-nolakoak diren, zer esentzia duten azaltzen dugu; baina honelako esentzia hutsak, batetik, **adimen maila hutsezkoak** direlako uler daitezke, eta bestetik, **errealitate mailakoak** dira, benetan izatera iritsi direlako, errealitatean gauzatzea falta duten esentziak dira. Falta duten hori da, hain zuzen, elementu metafisikoa den existentziak esentziari ematen diona.

## 3.4. **Jainkoa**

### 3.4.1. **Jainkoaren existentziaren proba**

Gizakiek helburutzat jainkoa daukaten bezala, filosofia teologiaren zerbitzari den eran, filosofiazko erakutsi guztiak orain hemen loturik ikusten ditugu gai nagusiaren zerbitzuan.

Jainkoa badela **egia agertua** da, aldi berean **arrazoiaren bitartez froga daitekeena**, hau da, mundu naturalaz dugun ezagutzatik. Jainkoaren berri jakiteko, beste edozein gauza ezagutzen den bezalaxe, **esperientziara jo behar da**. Jainkoa ez da materiazko mundu honetako izakia eta hemen ezin da esperientzia soilaz errealitatearen berri eduki. Esperientziatik hasi, bai, baina arrazonamendu lan luzeagoaren bidez iritsiko gara beraren existentzia ziurtatzera. Giza-adimenarentzat, jainkoa ezagutzea ez da gai erraza izango, baina bai ahalezkoa, zerren, bestela, Jainko egileak bera ez beste guztiak ezagutzeko ahalmenaz apaindua eginga izango baitzuen gizakia, eta horrek absurdu samarra dirudi. Gizakia jainkoa kontenplatzeko eginga da; haren adimenak, berez, badu **Jainkoa ezagutzeko ahalmena**.

Esentziaren eta existentziaren arteko bereizkuntza hori da Tomas Aquinokoarentzat Jainkoaren existentziaren frogaren giltza. Izaki finitu guztietan dago, baina esentzia existentziarekin bat datorren izaki gorenaren errealitatea eskatzen du.

Avizena arabiar filosofoaren eraginez, Tomas Aquinokoak honela azaldu zuen: «Existentzian eta esentzian bat egiten ez duen edozein izaki, beste izaki batek sortua izan behar du. Eta besteren bidez den orok bere buruaz den lehen kausara eraman behar duen bezalaxe, beharrezkoa da gainerako gauza guztientzat existitzeko kausa den errealitatea egotea, existitze-egintza hutsa, alegia. Bestela kausetan infinituraino joango litzateke, **existitze hutsa ez den orok existitzeko beste kausa bat baitu**». Labur esanda, existentzia eta esentzia bat ez datozen izaki finituaren existentzia kanpoko kausatik baizik ezin da etorri. Den guztiaren izaki hori, esentziaz (hau da, derrigorrez) den hori, **izaki ez-finitua eta iraunkorra** da; Moisesi esse *subsistens* gisa azaldu zitzaiona esanez: «Naizena naiz» (Irteera, III, 14) eta gure unibertsoaren Sortzailea.

Jainkoaren existentzia frogatzen du bost bide ospetsuen bitartez eta ez dira Antselmo Canterburykoaren proba ontologikoarekiko analogoak.

Antselmoren argudioa baliozkoa litzateke, Tomas Aquinokoaren arabera, Jainkoaren esentzia ezagutzeko bagenu. Baina horren berri ez dugunez gero, hobe da gertuago dugunetik abiatzea; izaki konkretuaren errealitate finitutik. San Antselmok argudio a priorikoa erabiltzen du Jainkoaren izatea frogatzeko: guztiok dugu izaki perfektu baten ideia, hau da, Jainkoarena.

Izaki baten perfekzio absolutuak horren existentzia eskatzen du eta beraz, Izaki perfektua (Jainkoa) existitzen egiten da.

San Antselmok ematen duen Jainkoaren definizioaren unibertsaltasuna ez da jakina, zeren, hala izateko, Jainkoaren kontzeptua sortzetikoztat hartzera behartuta baikaude. Definizio horretan Jainkoa betegintzarre edo perfekzio biribila, absolutua dela esaten da; hauek Jainkoa nolakoa den ezagutzea suposatzen du eta ezagutza hori gizakiak ez du berez, **a posteriori** baizik. Jainkoaren kontzeptu hori sortzetikoa ez bada, definizioak ez du balio unibertsalik, ezta, orduan, froga indarrrik ere. jainkoa badela frogatzeko ezin genezake beraren izaerari buruz dugun aurre ezagueraz balia.

A posteriori arrazoibidea da gizakiarentzat egokia, **efektutik kausara, ekintzetatik egileagana**. Bide hori ez da arazorik gabekoa. Ondorioak izadiaren **gauza errealak, mugatuak eta aldakorak** dira; kausa edo zergatia, berriz **egilea, mugagabea, aldaezina** da. A posteriori frogak uste duen bezala, mugatuek nola eramango gaituzte mugagabera? Badakigu zentzumenen bidez jasotzen ditugun datuetatik gauzen adimenezko ezagutzara igotzea posible zaiola gizakiari. Galdera, berriz, honela egin dezakegu: izadi-gauzetan ulergarri zaizkigunak premisa bezala hartuz, nola igo gaituzke? Aitortu beharra dago efektuak aztertze hutsez bakanik ezingo garela inoiz hain gora eta hain aparte dagoen kausaren ezagutza osora igo, baina bai kausa horren existentzia baieztatzera, kausa hori badela esatera. Ondorioetatik kausara igaro gaituzke, baldin proba-premisa diren ondorio horiek konklusioan badela frogatzen den mota jakineko kausa hartatik bakarrik etor litezkeenak badira.

#### **Probak. Bost bideak.**

- **Lehen bidea izaki naturalen higidura edo aldaketatik abiatzen da.** Lengoia aristotelikoan, potentziatik aktora pasatzea bezala adierazten da. Higidura orotan bereizi egin behar da **higitzen dena eta higiarazten duena**. Ezer ez da berez aldatzen eta aldatzen den izaki oro, beraz, beste batek higiarazten du, baina **ezin gara eragile eta eraginen katean infinituraino joan**, bestela higiduraren hasierarik egongo ez litzatekeelako. Beraz, higitzen ez den lehen eragilea, **motor ibilgea** (hau da, jainkoa) postulatu behar da.

- **Bigarren bidea kausa erazlearen ordenan oinarritzen da** (hau ere kontzeptu aristotelikoa). Ezer ezin daiteke izan bere buruaren kausa. Hala izateko norberaren izatearen aurretik izan beharko baitzuen. **Kausa eta efektuen katean ezin da infinituraino joan**. Beraz onartu beharra dago **kausak erazle guztien jatorriak kausarik gabeko lehen Kausa dagoela**. Jainko deitzen dugu eta bere esku dago lehen kausa erazlea izatea.

- **Hirugarren bidea izaki naturalen izaera kontingentetik** (izan daitezkeen edo ez daitezkeen izaki egotetik) abiatzen da. Esperientziak erakusten digu mundu naturala, bere osotasunean, bilakaeraren eta heriotzaren mende dagoela. Izaki guztiak kontingenteak balira, denak hasiko ziren existitzen; baina lehen ez ziren izan eta gero izateari utziko diote; ezerezetik ere ez litzateke ezer sortuko. Horien existentzia kontingentea da, beraz, ez du beharrezkotasun izaerarik. Izaki finitu kontingenteak direnez gero, onartu beharra dago dena ez dela kontingentea eta errealaren beharrezkoa dagoela. **Beharrezko hori kausaduna edo «kausarik gabea» izan daiteke**. Baina kausen ordenan infinituraino atzera jotzerik ez dagoenez gero, onartu beharra dago berez izaki beharrezkoa edo «kausarik gabekoa» den izakia badela. Beharrezko izaki hori jainkoa da, ontologia tomistan derrigorrezko existentzia absolutua duen esentzia gisa definitzen den Jainkoa.

- **Laugarren bidea izakietan dauden perfekzio maila desberdinetatik** (gehiago eta gutxiago esanda juzgatzen direnetan) abiatzen da. Guk gauzetaz iritzi konparatzaileak noiznahi egiten dugu. Gauzak hobeak eta eskasagoak direla suposatzen dugu. **Kualitate bakoitzaren izaki goren batek nonbait izan behar du**. Mundu naturalean ez daude egia, ontasuna, edertasuna eta abar, era osatuan; baina badago perfekzio ideia. Ez-perfektuaren ebidentziatik, paradoxaz, izaki perfektuaren ideia sortzen da eta hori jainkoa da.

- **Bosgarren bideak, era berean, aristotelikoa den helburuzko kausa kontzeptua hartzen du oinarritzat**. Unibertsoan argi eta garbi helbururik badago, izaki naturaleza mundua ez da kaotikoa, aitzitik kosmikoki ordenatua eta helburu baten arabera agertzen da. Helburu horrek

bitartekoen eta helburuaren arteko harremana ezagutzen duen adimena dagoela adierazten du. **Ordena kosmiko hori ezin daiteke zoriaren fruitu izan, baizik eta adimen batek izakiak bideratu egiten ditu, hauek dituzten helburuak bete ditzaten**, horretarako sortu dira eta.

Bost bide horiek era berdintsuan eginak daude, zentzumenek errealitatean jasotzen dituzten datuetatik hasten dira; mafia horretan gizakia munduko egia izpietatik argi pixka bat egitera iristen da eta argi horretatik, berriz, giza-adimena egia gorenera igotzen da. Azkengabeko kausa-katearen ezina ere proba guztietan sartzen da.

### 3.4.2. Jainkoaren izaera

Filosofia Jainkoaren existentzia frogatzera iritsi denean, ez al du aurrera egin behar?

San Tomasen filosofiak Jainkoaren naturaz esaten duena da oraingo gaia. Giza-adimenaren ahalmenetan al dago Jainkoaren izaera zer den jakitea? Ikusten genuen izakietatik egileagana igotzeko bidea zerbait erakusten zigun: eginek nolabait egileagana daraman zerbait eduki behar dute. Efektu-kausen arteko hariari heltzen genion, hari mehea benetan, kausaren izatea ziurtatzera beste ezertara eramateko indarririk ez zuena.

Gauzen izaerek ba al dute Jainkoaren izaerara eramateko gaitasunik? Auzia ondo aztertu behar da. Alde batetik, izadiaren izaerari buruz badugu zer esanik eta, beharbada, hortik hasita badago zerbait egiterik, hots, ulermenen artean ezagutza beste izaki guztietara egokitu ahal badaiteke, egokitze horrek ez al du indarririk Jainkoarengana luzatzeko? Bestalde, Jainkoaren existentzia frogatzerakoan, egia esan, haren izatea frogatu genuen, baino ez izate hutsa bailitzan, lehen eragile, lehen kausa ezarle, perfektua etab. bezala baizik. San Tomasek honako hau dio:

#### a) Jainkoa ezagutzeko ezezko bidea

Zentzumenen bidez ezin da Jainkoaz ezer jaso. Bestalde, guk erabiltzen ditugun ideiak materiazko gauzen esperientziak eginak dira, gure hizkuntza esperientziaren ekintzak adierazteko egina da. Nola ezagutu esperientziaren gainetik dagoen jainkoaren zerizana? Geure ideiak eta esperientzia nola erabili behar ditugu Jainkoaz hitz egiteko?

Gizakiak ezin du Jainkoaren zerizana ezagutu, ezin du bere indarrez bereganatu; baina badaki, gauzen esperientziaren bitartez bada ere, Jainkoa badela. Jainkoaren substantzia, errealitatea **zer den jakitera ezin gara iritsi, baina bai zer ez den jakitera**. Adibidez, badakigu ez dela materiazko substantzia bat. Era honetako iritzi asko egin ditzakegu eta zer ez den esanez, orduan eta gehiago ezagutzuz joango gara. Bide horretatik joanez gero, Jainkoaren izaerari lehen kausa eta beharrezko izateari ez dagozkion materiazko izakien artean ikusten ditugun tasun guztiak uka diezazkiokegu. jainkoari tasun horiek ukatzeak ez du esan nahi berari zerbait onik ukatzen diogunik, jainkoa tasun horien gainetik dagoela aitortzen baizik.

Ez da materiazkoa, hau da, **espirituzkoa** da. Ez da konposatua, **sinplea** da, hots: materiazko izakia azaltzeko erabiltzen ditugun osagarri metafisiko guztiek ez dute hemen lekurik.

#### b) Jainkoa ezagutzeko baiezko bidea

Bada Jainkoa ezagutzeko beste era bat. Oraingoan ere, beti bezala, izadian atzitzen ditugunetik hasi behar dugu. **Izadian ikusten ditugun alderdi onak egotziko dizkiogu jainkoaren izaerari**. Noski, era honetan lortuko dugun **ezagutza inperfektua** izango da. Zergatik? Izadiko errealitatetik abiatuz baikoaz jainkoaren ezagutzara, izadian guk, berez, izadia besterik ezagutzen ez dugulako, ez jainkoaren izaerarik.

jainkoaren izaerari guk izenak jartzen dizkiogu; izen horiek gauzetan ikusten ditugun alderdi positiboak dira. Gauza horiek jainkoagandik datoz, dituzten alderdi positibo eta guzti; baina

horrek ez du esan nahi gauzen alderdi positiboak eta Jainkoarenak berak direnik; hala balitz, dena egina edukiko genuke, baina ez. Esan dezakegu bederen mundu honetako gauzen

alderdi positiboek eta Jainkoarenak antza dutela eta, hain zuzen ere, puntu horretan finkatzen du San Tomasek Jainkoa ezagutzeko baieztoko bidearen esperantza guztia. Gauzak eta Jainkoak elkarren artean duten nolabaiteko antzari «analogia» deitzen dio Aquinokoak.

Har ditzagun adibidez, Edertasuna, Azkartasuna, Izatea eta antzeko alderdi positiboak. Izadian ikusten ditugunak dira. Jainkoak eduki behar dituen alderdi onak erabat baikorrak izanik, alderdi positibo horiek Jainkoaren izaeran falta ezinezkoak direla erabakitzen dugu. Jainkoa ederra, azkarra da eta izatea du, baina ez mundu honetako gauzen antzera, beste era batera baizik: osorik, bete-betean, alderdi positibo bakoitzaren goi-goiko mailan. Esan dezakegu bera dela edertasuna, adimena bera, izatea berbera. Zer egin dugu pauso horiek emateko eta erabaki horiek hartzeko? Alde batetik, ez dugu esaten Jainkoa ederra dela gizakia ederra den bezala; nahiz eta Jainkoaren edertasun-ideia horretara giza edertasunaren bidez iritsi. Guk desberdintzat gogoeman dezakegu bataren eta bestearen edertasuna. Honela, goi-mailako edertasunera garamatza, erabatekora, Jainkoa edertasuna bera dela esatera.

Bataren nahiz bestearen edertasunak antzik baduela esateko, Aquinokoak filosofian erabiltzen den hitz jakin bat erabakiko du: «analogia» hitza. Jainkoaren eder izatea eta gizakiaren eder izatea «analogoak» dira, badute antzik. Hau da, eder hitzak kasu batean eta bestean ez du gauza bera esan nahi (ez da adiera bakarrekoa edo «unibokoa»), ezta erabat desberdina ere (ez da adiera bikoa edo «ekibokoa»). Unibokoa ez dena eta ekibokoa ere ez dena, analogoa da. Analogia honetantxe dago: zentzumenen bidez atzitzen ditugun mundu honetako gauzek Jainkoarekin antza dutela. Nola? Jainkoa delako haien eredu absolutua. Aipatu ditugun mota guztietako alderdi positiboak, alde negatiborik ez dutenak alegia, lehen-lehenik jainkoari eta gero gauzei dagozkienak dira, gauzek Hark emanik dituzte kalitate horiek. Hara zergatik eta nondik sortzen den jainkoaren eta gauzen arteko antza.

### 3.5. Kreazio lana

#### 3.5.1. Izadia

Izadia Jainkoarengandik etorri da izatera. Jainkoa lehen kausa da, izaki beharrezkoa da eta gauzek, kontingenteak eta mugatuak direnez gero, lehen kausa horretatik kreazioaren bidez datozenak behar dute izan. Izadian parte duten guztiak kreatuak dira, ezerezetik eginak.

Gauzak lehendik bazen zera batetik eginak izan balira, lehendik zen horrek jainkoa bera edo beste zerbait beharko zukeen izan. Jainkoa bera ezin izan daiteke gauzen gaia, berez sinplea, mugiezina, espirituzkoa delako. Jainkoa ez den zerbait are gutxiago, zeren lehen kausatik kanpo ezin baitaiteke ezer izan; izaki beharrezkoa den hori, beraz, behartua dago gauzak *ex nihilo* egitera. Gauzak kreazioz eginak izateak haxe esan nahi du: aurretik ez zela **ezer Jainkoa besterik**, eta **gero bazirela gauzak**. Izaki kreatuek Jainkoagandiko harreman egiazkoa dute, **mendetasunezko harremana**.

Jainkoak kreazio-lana **askatasunean** egin behar izan zuen. Ekintza aske horrek helburu bat behar zuen: Jainkoak bere edertasuna eta izatearen aintza, ohorea eta agerpena zituen helburu. Gizakiak ez diren izaki guztiak gizakiaren zerbitzuan eginak dira, gizakia mantentzeko eta, adimenezko ezagutzaren bidez, jainkoagana eramateko.

Jainkoak eginak dira gauzak. Nola? «**Eredu-ideiak**» gauzen eredutzat edukiz. «Eredu-ideien tankera dutenak dira **gauzen esentzia bakarrak, unibertsalak eta iraunkorrak (gauzen formak)**. Jainkoa **gauzen kausa** da: batetik, jainkoaren izateak ematen die **gauzei izatea** eta, bestetik, jainkoaren eredu-ideiei esker dute gauzek beraiena den esentzia edo zerizana. Jainkoak izatean eta zerizanean parte harrarazten die gauzei. Eta horrekin, «**parte hartze**» kontzeptura iristen gara. Kontzeptu hau benetan garrantzitsua da Aquinokoaren filosofian (Platon eta platonismotik hartua da), azaltzen ari garen beste kontzeptu asko bezala, adibidez «eredu-ideiak».

Hemen esandakoak izadi osoarentzat balio du; hala ere, adieraz ditzagun gizadiari buruzko alderdi zehatzagoak.

### **3.5.2. Gizakia**

#### **a) Izaera**

Gizakia ere materiaz eta formaz osaturik dago, izadiko beste gauza guztien antzera. Tomas Aquinokoak, Aristotelesekina batera, gizakia forma substantzialak bakarrik biziartzen duela aitortzen du. Forma horri arima deitzen diogu. Arima bakar horrek gizakiak egin behar dituen funtzio guztien motorra izan behar du. Betebehar horiek aurrera eramateko gizakiak baditu hainbat ahalmen. Ahalmen batzuk arimarenak dira, hau da, ez daude gorputzaren mende. Beste batzuek, berriz, gorputzaren bidez jardun behar dute. Ezagutza, adibidez, lehenengoetakoa da, eta bere kasa jardun dezake. Gorputzari loturik dagoen bitartean, badu gorputzarekiko halako mendekotasun bat: ezagutu nahi badu, zentzumenek prestatu behar dizkiote ezagutza gaiak, sentipenezko datuak.

Ahalmenen artean, Tomas Aquinokoak hauek jartzen ditu: ahalmen begetatiboak (elikatu, hazi etab.) gorputzarenak dira (noski, arimak biziartzen duen gorputzarenak), eta norberaren gorputza dute beren objektu egokia eta muga. Beraien tasuna materiazkoa da. Arrazoimena (adimen-egilea eta jasailea berberak dira) eta nahimena; hauen tasuna materiagabekotasuna da. Ahalmen horiek guztiak giza esentziazkoak dira, beren nortasuna gordetzen dute, bakoitzak bere objektua, bere helburua, bere lana baitu. Ahalmen horiek osatzen eta apaintzen dute gizakia, eta zorionera bultzatzen, azken helburu nagusira bezala.

Aristotelismoak dioenez, gorputzaren forma izatea da arimari dagokiona; egiteko hori betetzeko gauza da beti eta ahalmen hori gordetzen du beti, gorputza formaz janztea berezkoa duelako. Baina beraren ahalmenak ez dira gorputza biziartzearekin bukatzen. Ez du bere kasa izateko, bere kasa bizitzeko eta besteen beharrik gabe izateko ahalmena galdu.

Giza-arima hilezkorra da. Suntsiezina eta ustelgaitza da, beregainekoa delako, hain zuzen.

Arimak espirituzkoa eta beregainekoa izan behar du beste arrazoi honegatik ere: izaki guztien zerizanak ezagutzeko egina delako. Zeren, materiazkoa izango balitz, izaki mota jakinak ezagutzeko gauza izango bailitzateke, horiek bakarrik, eta ez denak, hots: izaki materialek izate mailaketan beheragoko maila hartzen dutenek.

Beste arrazoi bat ere jartzen du. Izaten jarraitzeko gogo bizia du. Gogo honen esanahia adimenez ondo neurtuta dauka, hori baita bere egitekoa: errealtatea adimenez aztertzea. Horregatik, betikotasunaren egarri asegaitza bihurtzen da. Garbi dago halako izakiek ezin dutela gogo mota horietakorik alferrik eduki. Hau da: gogo hori beteko da, arima hilezkorra da.

#### **b) Askatasuna**

Gizakiak, gainera, aukerarena ere badu. Gizakia libre dela esan nahi du horrek. Gizakia, bada, askatasunaren aldetik libre, da zorion bidea utzi eta zorionetik urruntzeko.

Aukeramen hori askatasuna da; baina aukeratu aurreko adimen loturak azpimarratuz ulertua, arrazoiaren iritziak emateko askatasuna da. Hitz gutxitan esanda, tomismoaren intelektualismoarekin ondo datorrena. Tomas Aquinokoarentzat askatasuna gehiago da adimenaren gauza beste ezerezena baino. Beraren intelektualismoa nabarmenagoa agertzen da adimena nahiaren gainetik dagoela esaten duenean. Ezaguna da Platon eta San Agustinen jarraitzaileek alderantziz azaltzen zutela auzia; haientzat nahia adimenaren gainetik dago. Duns Scotok aukera horren zergatiak ematen dituenean, hauxe dio: nahia da gizakiaren lehen ahalmena, askatasunari loturik dagoelako; adimena, berriz, beharriari dagokiona da.

#### **c) Morala**

Gizakiak zorionera jotzen du halabeharrez. Horrek ez du esan nahi, ordea, ekintza bakoitzean nahitaez horretara bultzatua izaten denik. Esan nahi duena da, gizakiak bere berezko joera zoriona duela, halaxe egina eta horretara zuzendua dagoela.

Gizakiaren azken zoriona Jainkoa da; baina, batetik, adimenak ez du gizakia beti horretara garbi bultzatzen (nahiz eta berezko arrazoiaren bidez gizakiarentzat posible izan hori dena jakitea) eta, bestetik, gizakiak, askotan grina txarren artean eta ilunpean darama bere bizimodua, eta ez ditu beti garbi ikusten zorionera doazen bideak.

Hemen ere Tomas Aquinokoa Aristotelesen jarraitzailea da. Tomas Aquinokoarentzat gizakiaren azken helburua zoriona da eta azken zoriona jainkoaren kontenplazioan jartzen du. Tomas Aquinokoaren moralak eudemonikoa eta intelektualista da.

Noski, hemen Etikaren ikuspegiaren pean sartzen diren **ekintzak libreak** dira, ez besteak, hau da: aukeramenaren agindupean sortuak direnak. Aitortzen da, gainera, nahiaren objektua **ona** dela eta gizakiak baduela bere ekintzak helburu jakin baterantz zuzentzeko ahalmena. Helburu nagusia, azkenean, bere zorion egarria aseko duen bakarra, gizakiak naturaz bere baitan idatzia daukana, hau da: jainkoaren ezagutza bete-betea, beste munduan egingo duena.

Tomas Aquinokoa honetan aldentzen da Aristotelesengandik, haren iritzian, gizakiaren azken helburua den zorionak, mundu honetan lortzen denak, adimen mailakoa behar baitu izan. Aquinokoarentzat mundu honetan lor daitekeen zoriona betegingabea izango da derrigorrez, benetakoa beste mundukoa izango baita.

Gizakiaren helburua zein den jakin ondoren, erraza da ekintza onak eta txarrak zein diren erabakitzea: **proposatutako helburura daramatenak ekintza onak dira**, besteak txarrak; borondate libre eta arrazoi argiz zuzenduak izan diren ekintzek gizakia benetako zorionera eramanez dezakete.

Gizakiak, berau azken zorionera irits dadin, beharrezkoak ditu **bertuteak**. Bi motakoak izan daitezke: **adimenezkoak eta moralak**. Ekintzak behar den erara maiz berreginez, **ohitura** onak edukitzera iristen gara. Ohitura on horiek dira bertuteak. Bertuteak beharrezkoak ditugu, geure ekintzak erraz eta arrazonamenduaren arabera egin ditzagun. Bertuteek asko laguntzen dute, hori ezin da ukatu, baina ondo ulertu behar dira. Hain zuzen, neurri bat dute, guztientzat bera; **gehiegitik eta gutxiegitik aldentzen den erdiko puntu** batean dute beren izatea beti; neurri-hartze horretara arrazoiaren bidez bakarrik heltzen gara.

#### d) Lege naturala eta lege positiboa

Arrazonamenduari jarraitzea, behar den bezala gauzak egitea, ez da zernahi erabaki hartzea, **giza izaerak agintzen duena** edo berarekin ados datorrena egitea baizik. Giza izaerak agintzen duenari lege naturala esaten zaio. Lege horrek, lehen-lehenik, bizia luzatzea agintzen digu eta horretarako behar den guztia egitea; norberaren eta bestean bizia gordetzea. Gero ugaltzeko, egia ezagutzeko eta gizartean bizitzeko aginduak datoz.

Gizakiari, beronek berezkoak dituen agindu horiek gehiago zehaztuta eman behar zaizkio. Horretarako daude lege positiboak edo **agintariek ematen dituztenak**. Hauek, lege naturalaren zehaztapenak direnez gero, beharrezkoak eta lege naturalak eskatzen dituenak direla esan behar da. Lege positiboak lege naturalaren luzapena dira eta, horregatik, **lege positiboek lege naturala errespetatu behar dute beti**.

Garbi ikusten da Tomas Aquinokoak ez dituela bi lege mota horiek bereizirik eman, elkarren artean zerikusirik ez balute bezala, elkarri oso loturik baizik; zuzenbide edo lege positiboen zerrenda eta moralak loturik daude, biak **justiziaren mendean** egonik.

Gizakia bere helburura daraman lege natural hori izadi osoa helburu unibertsalera daraman lege naturalaren erakoa da, **lege unibertsalaren** zati bat. Lege unibertsala, berriz, Jainkoak berez duen betiko legearen luzapena da.

**Legeak** batetik eta **helburuak** bestetik, biak elkarrekin josiak, elkarrentzako hain egokiak, hauke erakusten digute: Tomas Aquinokoak ere onartzen duela Aristotelesek hainbeste maite izan zuen teologiazko mundu ikuskera.



### 3.5.3. Izakien hierarkia

Izakien hierarki teoria hau oso zabalduta zegoen antzina filosofoen artean. Teoria horrek dioenez, izadiaren berri jakiteko, gauzak nola eginda dauden jakin behar da lehendabizi. Gauzak izaki mailen hierarkia estua gordez eginak daude. Arrazoiaren bidez gauzen berri jakitera iristeak esan nahi du gizakien hierarkia osoa ezagutzera iritsi garela.

San Tomas Aquinokoak baditu arrazoi bikainak gauzen hierarkia aztertzen saiatzeko: batetik, aristotelismoak bultzatu zuen horretara, gauzen mota desberdinen zerrendak egitea Aristotelesen lan maiteenetakoa baitzen; bestetik, beraren intelektualismoa eta sintesi lanerako trebetasuna zirela bide, gauza jakina da asko eta asko saiatu zela izakien arteko izaki maila aztertzen eta izaki maila bakoitzaren berezitasunak adierazten.

San Tomasek proposatzen duena hau da: **izaki guztiak, mailaz maila, behekoenetatik hasi eta** goikoenetara igoz **eginak daudela**, ez dagoela bete gabeko izaki kategoriarik, hau da, izaki maila guztiak **izaki errealez** osatuak daudela, ez dagoela izaki maila hutsik. Gauzak hala direla, **izaki ez-organikoetatik** hasten gara, hauen forma substantziala baita behekoenetakoa; gero, mailaz maila **forma begetatibora, arrazoirik gabeko animalietara, giza-arima arrazionalaren formara** eta azkenean, forma honetatik, jainkoaren forma hutsera, akto huts azkengabera igotzen gara. Gizakiaren eta Jainkoaren artean badago hutsik dagoen izate maila bat. Hara zergatik: **giza-forma sortua da**, eta mugaturik eta gorputzari loturik egotekoa da; **Jainkoarena sortu gabea da**, mugagabea eta espirituzkoa. Baina bada tartekorik, hots, sortua eta mugatua izanik, espirituzkoa izango den izakiak bete behar duena; izaki horri **aingerua** esaten diogu. Aingeruek badaukate, eduki behar dute, hori bai, esentziaren eta existentziaren arteko desberdintasuna, hau da: jainkoak ez beste guztiek, sorturiko izaki guztien antzera, existentzia hartua behar dute eduki, beste batek emana,

## HIZTEGIA

**Adimena:** «Adimen» hitza bi partez osaturik dago: adi- aditu aditzaren erroitik dator eta ulertu esan nahi du; eta -men atzizkiak ahalmena edo gaitasuna adierazten du. Adimena ulertzeko ahalmena da, beraz. Pertsonaren baitan gertatzen da ekintza hau. Orain arte, bereizita eta inolako loturarik gabe zeuden elementu edo gertaerak batera jartzen dira barne ekintza horren bidez. Zerbait egin aurretik pentsatu egiten dugu, batzuetan ingurunea aldatzeko edo oinarritzko beharrak tresna egokiak erabiliz asetzeko. Ulertzea, gainera, gauzak errealitate hartzeko gaitasuna da, zeinuak sinbolo bihurtzeko edo ideia unibertsalak eta abstraktuak sortzeko gaitasuna.

**Analogia:** Berdinak ez diren gauza edo pertsonen arteko antzekotasun erlazioa, gauza desberdinak nolabait berdintzen dituen batasuna. Hizketa analogikoa hizkuntza uniboko edo adiera bakarrekoa eta hizkuntza ekiboko edo adiera bikoaren bitartekoa da. Jainkoaren eta izakien erlazio arazoari irtenbidea aurkitu nahi izan zioten analogiaren bidez.

**Arima:** Gizakiaren baitan, bizitza prozesuaren aldaketetan zehar, iraunkor mantentzen den materia-gabeko printzipioari deitzen zaio. Bizitza ematen dio organismoari eta bizitza psikiko ekintzak sortu eta mantentzen ditu. Erlizio handiek eta pentsamendu filosofiko gehienek onartzen dute arimaren existentzia. Filosofian, besteak beste, Platonek, Aristotelesek, Plotinok, Patristikak, Eskolastikak, Descartesek, Leibnizek, Lockek, Berkeleyk, Kantek eta abarrek. Materialismoak arimaren existentzia ukatzen du, existitzen den oro materiara erreduzitzen baitu.

**Dogmatismoa:** Filosofo batzuk besteei sarritan leporatu izan dieten salakuntza, haien baieztapenak pisugabeko eta arrazoiz kanpoko ustekeriatzat zeuzkatenean. Kantek geroztik honako zentzu hau hartzen du: alde aurretik arrazoimenaren izaeraz eta ahalmenaz jabetu gabe, baieztapen metafisikoak egiteari deritzo. Honela deitu izan zen XVII - XVIII. mendeetako arrazionalismoa, honen printzipio metafisikoak «a priori» onartzen zituelako.

**Egia:** Egia ezagutzea ahalbidetzen duten elementuen arteko erlazioari subjektuak ezagutu duenaren eta objektuaren arteko elkarrekikotasuna edo egokitzapena deritzo. Baina elkarrekikotasun horrek ezin du materiala izan, objektuak ez baitira guregan sartzen ezagutzen ditugunean. Elkarrekikotasuna formala da, objektuari buruz egiten dugun irudikapenaren (kontzeptuaren) eta objektuaren beraren artekoa baita. Ulermenaren eta gauzaren arteko egokitzapena da egia.

**Eskolastika:** Latinezko schola hitzetik dator eta Erdi Aroko ikastetxeetan erakusten zen jakituria esan nahi du. Esanahia zabalduz, irakasten ziren gai zerrenda eta metodoa izendatzeko ere erabiltzen da. Guk gai honetan Eskolastika idazten dugunean, Erdi Aroko kristau-filosofia ulertuko dugu.

**Espiritua:** Materia gabeko izakia, bakuna, eta substantziala, bere buruaz jabe izateko gaitasuna duena. Jatorrizko zentzuan arras mehea den substantzia materialaz, adibidez, haizeaz, putzaldiaz, sugarraz, eta abar esan ohi da.

Bizitza printzipioa, eta horren ondorioz banakako arima. Hizkuntza teologikoan edo mistikoan Jainkoa, aingeruak, deabrua, gizakiaren arima... denak espirituak dira.

Zentzu inpersonal batean hartzen bada, espiritua errealitate pentsatzailea da. Azken adiera hori da hedatuena filosofian.

**Jainkoa:** Mundua eratzen duen izaki anitz formaduna, izaki ororen funtsa errotoa. Berarengan dena oinarritzen da, izaki oro bere baitatik ateratzen baita lehen kausa eraginkor bezala, eta Berak azken xede bezala erakartzen ditu, bere betetasunetik denak parte hartzen baitu, bere handitasunaren aztarna bat eskaintzeko.

Jainkoagan esentzia eta existentzia batera datoz, Izate berbera da, Izate subsistentea. Bere atributu edo ezaugarriak hauek dira: Betierekoa, Orojakilea, Ahalguztiduna, Justua eta Perfektua.

**Jakintza:** Prozesu baten emaitza dugu. Prozesu horretan bi elementuk hartzen dute parte: dakien subjektuak (subjektiboa) eta jakintzagai den objektuak (objektiboa). Subjektiboak ziurtasunarekin du zerikusia; ziur egongo da dakien hori egia dela, baina beste batzuetan zalantzak izango ditu. Objektiboak egiarekin du zerikusia: subjektua dakien hori egia dela esan eta arrazoiak emateko gai izaten da batzuetan, baina beste batzuetan, dakien hori agian edo ziur aski egia dela baino ezin izaten du esan.

**Kontigentzia:** Beharrezkotasunari kontrajartzen zaio. Izaki kontingentea honako hau da: existentzian dirauen zerbait, baina existentzian izateari utz diezaiokeena. Metafisikoki izaki kontingentea bere baitan ez dena baizik eta beste baténgan dena hartua izan da.

Kontingentea eta beharrezkotasuna Erdi Aroan aipatzen ziren Sortzailea eta sorkariak adierazteko. Unibertsoaren Sortzailea izaki beharrezkoa da eta sorkariak, izaki kreatuak, ordea, kontingenteak, Hura (Jainkoa) behar baitute existentzian irauteko, sortu eta desagertu egiten diren izakiak baitira.

**Metafisika:** Izana estudiantzen duen zientzia da. Izana bere orokortasunean estudiantzen du, ez ikuspegi partikular batetik. Izana bere azken kausa eta printzipioetatik aztertzen duen zientzia da Metafisika. Hemen «zientzia» hitza bere zentzu klasikoan erabiltzen da, hau da, kausen bidezko ezagutza gisa. Zentzu horretan, ezagutza iritziaren kontrakoa da.

**Misterio:** Guk nekez uler dezakegun izaki edo egia estali bat hots, sinbolo baten zentzu ezezaguna edo errealitateak planteatzen dizkigun arazo zail edo gaindiezinak. Infinituak bere naturagatik arrazoi mugatuaren ezagutza indarra gaintzen du, ezin baititu esperientziaren munduko objektuak bezala ezagutu. Baina bate ere, erlijio munduari deitzen zaio misterioa, adibidez Jainkoaren atributuak, bere esentzia, Hirutasun Santuaren misterioa – hiru pertsona eta natura bat - Jainkoa gizaki egitea (Jesukristo). Erlijio misterio horiek adigarriak dira bere baitan Jainkoarentzat. Beran existentzia adierazgarria da errebelazioaren bitartez eta, guretzat, analogiaren bitartez, nahiz eta ez era perfektuan.

**Orakulua:** Apaizak egindako kontsultei Jainkoak emandako erantzuna.

**Sinesmena:** Subjektua, zenbaitetan, erabat ziur egoten da dioen hori egia dela, baina ez du izaten esandakoa frogatzeko balio duen justifikazio unibertsalik: sinesmenean oinarritutako jakintza dugu, beraz. Segurtasun subjektiboaren bidez, subjektua ez da jakintzagaia frogatuko duen justifikazio objektiborik emateko gai. Jarrera erlijiosoak berezkoa du sinesgaiak onartzea, hau da, fedea. Munduko gertaerak eta gauzak ez dira lege fisiko eta biologikoak itsu-itsuan betetzen dituzten errealitate eta gertaerak izango, Jainkoaren nahiaren azalpenak baizik. Jainkoak bere ahalmena eta nahia munduan agertzen dituzenez gero, benetako gizakume sinestunarentzat mundua sakratu bilakatzen da. Fededunak Jainkoagan sinetsi du, Beraren irakatsiak onartzen eta arauak betetzen ditu, eta salbamena itxaroten du.

**Teleologia:** XVII. mendean Wolff germaniar filosofoak asmatutako terminoa. Gauzak helburuaren bidez (telos=helburu) azaldu nahi ditu. Wolffentzat teleologia gauzen helburuak adierazten dituen natur filosofiaren atal bat da, eta beste atala, gauzen zergatiak bilatzen dituen.